

Prensa Oharra **Nota de Prensa**

Foru Aldundiak Atauriko geltokia birgaitzeko obren bigarren fasearen kontratazioa lizitatu du

Gasteiz, 2025eko otsailaren 4a. Gobernu Kontseiluak, Saray Zaratek zuzentzen duen Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Sailak eskatuta, Atauriko geltokiaren birgaitze jasangarriaren bigarren faseko lanen proiektua onetsi du, bai eta lanak kontratatzea ere. Vasco-Navarro trenbideko antzinako geltokia egokitzen ari dira, Arabako Mendialdeko asfalto naturalen interpretazio zentro izan dadin.

Fase honetan, ekipamenduaren barne banaketarako obra zibila gauzatzea aurreikusten da, baita eraikinaren energia eraginkortasuneko eta autokontsumoko jarduketak egitea ere. Hori guztia, Asfalto Naturaleko Meatze Paisaien eta Vasco-Navarro Trenbide Zaharreko Bide Berdearen Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planaren esparruan, Europar Batasunak NextGenerationEU funtsen bidez finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatuta.

Esleitutako aurrekontua 514.550 euro da (BEZa barne) eta bost hilabete izango dira hura gauzatzeko.

Asfalto Naturaleko Meatze Paisaien eta Vasco-Navarro Trenbide Zaharreko Bide Berdearen Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planaren barruan bi jarduketa daude. Alde batetik, asfalto naturaleko meatze paisaien interpretazio ibilbide bat abian jartzea, martxan dauden ibilbideak erabiliz. Ibilbide hori udaberrian egongo da erabiltzeko moduan. Eta, bestetik, Vasco-Navarro trenbide zaharraren Atauriko geltokia birgaitzea, Arabako Mendialdeko asfalto naturaleko meatze paisaien interpretazio zentroa jar dadin han.

Atauriko antzinako geltokia birgaitzeko lanen lehenengo fasea amaitzear da, eta honako lan hauek hartzen ditu barnean: eraikinaren egitura sendotzeko lanak eta birgaitze jasangarria, geltokitik gertu dagoen eremuan ingurumena eta paisaia lehengoratzeko obrak, eta geltokiaren inguruko hondakin urak naturan oinarritutako konponbideen bidez bideratzeko eta arazteko lanak.

Atauriko geltoki zaharra eraikin arkitektoniko berezia da, 1928. urtean eraikia. Hori dela eta, eraikin horren birgaitze jasangarria egitean, garrantzia izango du jatorrizko arkitektura eta oraindik kontserbatzen diren elementu arkitektoniko bereziak berreskuratzeak, eskualdeak duen ondare garrantzia agerian jartzeko.

Foru Aldundiak Armiñongo lotunea handitzeko bigarren fasearen proiektua onetsi du

AP-1 autobidearen eta A-1 autobiareen arteko elkargunea bi erreitik hirura handituko da, Gasteizerako noranzkoan

Foru Gobernu Kontseiluak behin betiko onetsi du gaur Armiñongo lotunean AP-1 autobidearen eta A-1 autobiareen elkargunea egokitzeko eta hobetzeko proiektua Gasteizerako noranzkoan. Proiektu hori onestea lotune hori zabaltzeko bigarren faseko obrak lizitatu aurreko izapidea da, Arabako hiribururako norabidean bi bideen arteko lotura bi erreitik hiru erreira igotzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiak barne hartzen du, halaber, hasierako onespena ematea proiektuaren Arabako Lurralde Historikoko eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakakoari eta hura jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, ALHAOn argitaratzen denetik hasita, hasiera emateko eraginpeko lurak desjabetzeko prozedurari.

Armiñongo lotunea handitzeko lehenengo faseko obrak egiten ari dira, eta A-1 autobiareen eta AP-1 autobidearen arteko lotura errei batetik bira zabaltzean datza. Obra horiek urte honen erdialdean amaituko dira, eta Aste Santuan eta udako oporretan, zirkulazio handiko uneetan, puntu horretan sortzen diren auto ilaren arazoa konponduko dute.

Foru Gobernu Kontseiluak orain onetsi du lotune hori zabaltzeko bigarren fasearen proiektua. Fase horretan, AP-1 autobideak eta A-1 autobiak Gasteizerako norabidean duten elkargunea bi erreitik hirura handituko da, erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko. Proiektuak jasotzen du elkargunearen tartean trazadura leuntzea eta zirkulazio abiadura egungo 80 km/h-tik 120 km/h-ra igotzea.

Bigarren fase honetako proiektua gaur onetsi ondoren, desjabetze izapidea egingo da, ondoren obrak lizitatu eta egiten hasteko 2025ean.

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak hitzarmen bat sinatu zuen 2022an Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioarekin, Armiñongo lotunea zabaltzea eta hobetzea bultzatzeko. Hitzarmen horrekin bat etorritik, foru aldundia arduratuko da bi alderdiek alde aurretik itundutako ezaugarriak dituzten proiektu teknikoaren idazketa izapidetzeaz, bai eta Araban eragindako ondasunen desjabetzea eta obren kontratazioa eta zuzendaritza izapidetzeaz ere.

Bestalde, Ministerioak bere gain hartuko du obren finantzaketa osoa, bai eta proiektuen idazketa, laguntza teknikoak eta eraginpeko desjabetzeak ere.

Foru Aldundiak 752.000 euro bideratuko ditu enpresek eskatutako arloetako prestakuntza ikastaroetara

Langabezian dauden arabarren kualifikazioa hobetzea da helburua

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailak 752.412 euro bideratuko ditu prestakuntza ikastaroetara, arabarren eta, bereziki, langabezian daudenen kualifikazioa eta enplegarritasuna hobetzeko. Arabako ekoizpen sareak eskatutako lanbide arloei buruzkoa izango dira finantzatutako ikastarook.

Foru Gobernuak gaur onetsi du deialdia, zeinaren bidez 630.000 euroekin finantzatuko baitira irabazteko xederik gabeko prestakuntza zentroak, fakultateak eta unibertsitate eskolak, bai eta sektoreko beste erakunde batzuk ere, prestakuntza ikastaroak diseinatu eta abian jartzeko. Aurrekontu horren zati bat —30.000 euro— teknologia berriei, kudeaketa tresnei eta industria jarduerari buruzko zabalkunde jardunaldiak eta mintegiak antolatzeke izango da.

Lehenengo deialdi horren ostean, hurrengo asteetan, 122.412 euroko bigarren deialdi bat izango da, kuadrillei eskualde bakoitzeko enpresen egitura ekonomikora eta premietara egokitutako prestakuntza eskaintza osagarria sustatzeko dirulaguntzak emateko.

Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak, bi deialdi horien bidez, 10 eta 100 ordu arteko prestakuntza ikastaroak finantzatuko ditu, modalitate presentzialean, lineakoan eta teleprestakuntzan. Teleprestakuntza pandemian hasi zen eskaintzen, eta arabar guztiek parte hartu ahal izatea du helburu, haien ordutegia eta bizilekua edozein izanik ere.

Lineako zuzeneko ikastaroetan, edukia aurrez aurreko ikastaroetako berbera da; alde bakarra bitartekoa da: ikastaroa ematen duenak ezagutza bera transmititzen die aldi berean bitarteko telematikoen bidez bertaratzen diren guztiei (aukera dago aurrez aurreko ikastaroa eta lineako zuzeneko formatua konbinatzeko).

Teleprestakuntza bitarteko telematikoen bidez emaniko prestakuntza da, baina ez da zuzenean ematen, eta horrek aukera ematen die ikasleei beraientzat aproposena den unean konektatzeko prestakuntza jasotzeko, eta, horrez gain, tutoretza orduak dituzte, zalantzak argitzeko. Teleprestakuntzak erregistro bat izango du, parte hartzaileen bertaratzea eta jarraipena bermatzeko eta kontrolatzeko.

Bi deialdi horien helburua da prestakuntza ematea gaur egun Arabako enpresek eskatzen dituzten jakintza eta lanbide arloetan, bi helbururekin: batetik, bertaratzen diren pertsonen enplegua aurkitzeko aukera gehiago izatea, eta, bestetik, lurraldeko ekoizpen sarearen langile premiak asetzea. Foru Aldundiaren prestakuntza eskaintza urtearen bigarren erdian egingo da, eta matrikula doakoa izango da ikastaro gehienetan.

Kultura Sailak elkarte eta enpresentzako sorkuntza eta zabalkunderako 250.000 euroko dirulaguntza atera du

Gainera, Santa Maria Katedrala Fundazioari 2025erako transferentzia egitea onetsi da, 799.005 euroko aurrekontuarekin

Gobernu Kontseiluak gaur onespena eman dio, Kultura eta Kirol Sailak proposatuta, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean kultura sortu eta hedatzeko programak garatzeko 2025erako dirulaguntzari, guztira 250.000 euroko inbertsioa eginda (iaz baino 18.000 euro gehiago).

Xedea da kultura arloko profesionalak, autonomoek, enpresek eta kultura elkarteek sustatutako kultura sorkuntzako eta hedapeneko programak garatzen laguntzea.

Onuradun izan daitezkeen erakundeen bi modalitate ezartzen dira.

- 1. modalitatea: Enpresak: 101.000 euro.
- 2. modalitatea. Elkarteak: 149.000 euro.

2021ean 18 proiektu lagundu ziren diruz. 2022an, berriz, 27. 2023an, 29. Eta 2024an, 27.

Santa Maria Katedrala

Bestalde, Gobernu Kontseiluak onespena eman dio Arabako Foru Aldundiak 2025eko ekitaldian Santa Maria Katedrala Fundazioari egingo dion urteko ekarpenari ere.

Santa Maria Katedrala Fundazioa da Gasteizen balio historikorik handiena duen tenplurik enblematikoena osorik zaharberritzeko plan zuzentzailea kudeatu eta garatzeko ardura duen erakundea. Erakunde hori oinarritzeko tresna da eraikina eta haren ingurunea arkitekturaren eta gizarte eta kulturaren aldetik berreskuratzeko. Ekarpena 799.005 euro da.